


1. Kabalkadaren egitura

Zuzenketa



Plaza hartzea - 0'13>1'29

Plaza hartzaileek egiten duten bidea marraz ezazu.



Bertsularien agurra - 1'29>2'35


1. Hutsuneak bete itzazu:

Arratsalde on **ikusle** oro
Plaza ederra dago arras
Altura hontatik begiek ere
Hartu dezakete arnas
Horra Lekornen **plaza** ttipi hau
gaur jantzirik kabalkadaz
Bertso, musika, dantza ta joko
goza dezagun **euskaraz**

Amets Arzallus (2024ko kabalkada Lekornen)

2. Bertsoa irudika ezazu:

*Aholku bat:
Marrazkiak atxiki
afitxa tailerrarentzat*



Dantza jauzia: Xoxuarenak - 2'35>4'31

1. Entzuten dituzun hitzak gainmarka itzazu:

Ebats	Erdizka	Lauetan	Eskuin
Ezker	Bietan	Dobla	Jauzi
Pika	Zeina	Luze	Hiru

2. Zer izaten ahal dira?

Dantza urratsak dira.

3. Bazter batean dantzari bat bada. Bere funtzioa zer den asmatzen ahalko duzu?

Dantzari honek dantza urratsak oihukatzen ditu dantzari guziei, hutsak edo ahantzaldiak sailhesteko.



Lehen agerraldia - 4'31>6'13




1. Orain arte ez duzun ikusi rol bat agertzen da bideoan, zein ote da?

Antzerkilariak ikusten ditugu. Korteia instalatzen da, auzi bat izanen delako.

2. Zein giro sorrarazten du agerraldi honek?


Agerraldia irringarria da: pertsonaiak karikaturatuak direlako.

3. Entzuten dituzun antonimoak (beste hitz baten kontrako erran-nahi duen hitza) elkarri lot itzazu:




Kadrillak - 6'13>8'36**1. Zenbateko taldeak dira?**

Laueko taldeak dira.



*Ez ahantz karten
inprimatzea eta
moztea!*

**2. Karta bat har ezazu. Agertu zaizun gorputz zatiarekin dantzariak egiten duten keinu bat mimatzen ahal ote duzu?****Buruarekin**

- Buruarekin:
Agurtu

**Launaka**

- Launaka:
Karratuan ibili

**Eskuekin**

- Eskuekin:
Txalotu

**Binaka**

- Binaka:
1- Lekuz aldatu
2- Elkarrekin itzuliak
egin

**Besoekin**

- Besoekin:
Altxatu

**Zangoekin**

- Zangoekin:
1- Punta
lurrean jo
2- Entrexatak



Hiru xito

lhauteri garaian, kaskarotek eskea egiten dute etxez etxe. Horren truke, dantzak eta kantuak eskaintzen dituzte, besteak beste Makil ttiki. Hemen dituzu dantza horren hitzak.

Hiru **xito** izan eta lau galdu
Gure **xitoaren ama** zerk jan du?
Purra purra egin nion portatik
Kukuruku egin zautan **eltzetik**.

Eltzea = Tupina /
Marmita / Lapikoa

Toki onetik leku txarretik
Kukuruku egin zautan eltzetik
Toki onetik leku txarretik
Kukuruku egin zautan eltzetik.



Nor da xitoaren ama?

Oiloa da.

Zure ustez, nork edo zerk jan du?

Laborariak, sukaldariak edo haseriak jan dezakete.

Ahurtiko makila eta makil ttiki - 8'36>10'39

Nola kokatuak dira dantzariak hasieran?

Launaka lerrokatuak dira eta parez pare jarriak laukizuzen baten osatzeko.

Zer figura egiten dute dantza erdian?

Borobil bat egiten dute dantzaren erdian.

Eta bukaeran zer pasatzen da?

Bukaeran, laukizuzena berriz osatzen dute eta publikoari buruz itzultzen dira.



Hiztegia erabil dezakezu!

Figurak

Laukia

Laukizuzena

Borobila

Parez pare


Bizkarrez bizkar

Lerroak / Lerrokatu

Lerro-lerro!

Launaka

Binaka



BEGIRATU

Soka dantza - 10'39>12'09

Dantza hau animalia bat balitz... Dantza horri lotu marraz ezazu.

*Aholku bat: Marrazkiak atxiki
afitxa tailerrarentzat edota
dantza tailerrentzat*

1. Kabalkadaren egitura

1. Plaza hartzea

2. Bertsolarien agurra

3. Xoxuarenak

4. Ateratze bat

5. Lehen agerraldia

6. Bertsolariak

7. Sartze bat

8. Kadrillak

9. Ateratze - Sartzea bat

10. Euskaldunak eta sorgiñak

11. Ateratze bat

12. Bigarren agerraldia

13. Bertsolariak

14. Sartze bat

15. Antxoriz

16. Ateratze - Sartzea bat

17. Makil dantza

18. Ateratze bat

19. Hirugarren agerraldia

20. Soka

21. Plaza ateratzea

1. Zein ordrean ikusi dituzu dantza, agerraldi edo bertso ezberdinak? Hitzak ordrean eman itzazu.

Kadrillak

Soka

Plaza hartzea

Bertsolarien agurra

Makil dantza

Lehen agerraldia

2. Dantzari, Antzerkiari, Bertsolaritzari lotzen dituzun gertaldiak kolore ezberdinekin azpimarra itzazu.

 : Dantza

 : Antzerkia

 : Bertsolaritza

3. Nola definituko zenituzke batzen diren momentuak?

Gelditzen diren momentuetan, dantzariak edota antzerkilariek plaza hartzen dute, instalatzen dira. Sartze eta ateratze mugimendu ezberdinak dira.